

## EDUKIONTZIEN PLANA AMARA BERRIN ETA INTXAURRONDON HASI DA

Gune Publikoetako eta Ingurumeneko zinegotzigoak programa pilotu hau jarriko dute martxan, eta, pixkanaka, hiriko gainerako auzoetara zabalduko da.



Astlehenean abiatuko zen **Amara Berri eta Intxaurrondo** auzoetan hondakinen bilketarako **edukiontzien plana**. Programa pilotu hau Gune Publikoetako eta Ingurumeneko departamentuek bultzatu dute, eta helburua da, emaitzak kontuan hartuta, hiriko gainerako auzoetara zabalduz joatea. Ingurumen teknikariak gaur bertan hasiko dira hautatutako eremuetako edukiontzien kokapen berriari buruzko informazioa auzotarrei ematen; informazio hori, hain zuzen, bi gune hauetan emango dute: Amara Berriko **ARCO merkataritza zentroan**, eta **Intxaurrondoko gizarte etxean**. Horrez

# Prentsa Oharra

## Nota de Prensa



gain, **hil honen erdialdera**, planari buruzko informazioa azaltzen duten liburuxkak banatuko dituzte aipatu auzoetako **postontzietan**, gaikako bilketa gehitzeko asmoz.

Alfonso Gurpegui Gune Publikoetako zinegotziak azaldu duenez, “2017ko datuen arabera, donostiar bakoitzak 1,20 kg hondakin sortzen du egunean, eta horien % 38 gaika biltzen du Donostiako Udalak. Datu horiek eskuan izanik, iaz erabaki zen hiri osoan ezarrita dauden edukiontzien hornidurari eta banaketari buruzko zenbait azterketa egitea, hondakinak behar bezala, dagokien edukiontzietan, bota daitezen sustatzeko”.

Alfonso Gurpeguik adierazi duenez, “azterketen emaitzen arabera, ondorio hauek atera dira: Donostian errefusaren edukiontzi ugari daude, hondakinak gaika biltzeko edukiontziekin alderatuta; errefusaren edukiontziak sakabanatuta daude, gaikako edukiontziekin alderatuta; gaikako edukiontziak dituzten auzotarrek urrunago dituzte edukiontzi horiek errefusaren edukiontziak baino; eta birziklapen tasa nahiko baxua da”.

Alfonso Gurpeguiren arabera, egoera horren aurrean beharrezkoa zen edukiontzien etxebizitzetan eta inguruko jardueretan zer eragin duten zorrotasunez aztertzea; hain zuzen, horren haritik egin da edukiontzien plana, Amara Berri eta Intxaurren auzoetan abian jarriko dena. Plan horri esker, "hiriko edukiontzien hornidura eta banaketa optimizatuko da, hondakinen birziklapen helburuak kontuan hartuta, eta, horretarako, eskura dauden baliabideak ezarriko zaizkie herritarrei; etxean nahiz saltokietan organikoa gaika biltzen duten pertsonen kopurua handituko da; gaikako bilketarako edukiontzi guztien erabilera handituko da; errefusaren edukiontzien kopurua gutxituko da; eta, oro har, birziklapenari buruzko kontzientzia susteratuko da, bai herritarren artean bai merkataritza sektorean”.

Azterketa horiek beste zenbait datu eman dituzte, hala nola “egun, AMARA BERRIn ez dagoela papera eta ontzi arinak biltzeko nahikoa edukiontzi; horri dagokionez, bereziki aipatu behar dira Morlans eta Erribera gunetan ontzi arinentzako dauden edukiontziak. Intxaurren ere ez dago nahikoa edukiontzi bertan sortzen diren paper eta ontzi arinen hondakinak biltzeko, bereziki Intxaurren Berri unitate txikian eta Marrutxipin (ontzi arinetan)”.

# Prentsa Oharra

## Nota de Prensa



Bestalde, Amara Berrin, “etxebizitza okupatuen % 100ek 100 metrora baino distantzia txikiagora bota ditzake hondakinak, eta % 99k gaikako bilketa egin dezake, 100 metrora baino distantzia txikiagora baititu horretarako edukiontzia. Kasu horretan, helburua da etxe guztien eskura jartzea zerbitzu horiek izateko aukera. Intxaurrondon, berriz, etxebizitza okupatuen % 94k du aukera hondakinak 100 metrora baino distantzia txikiagora botatzeko, eta % 75ek, gaikako bilketa egin dezake, 100 metrora baino distantzia txikiagora baitituzte horretarako edukiontzia. Kasu horri dagokionez, edukiontzien planaren xedea da etxebizitza okupatuen % 95ek gaikako bilketa egin ahal izatea, gaika biltzeko edukiontzia 100 metrora baino distantzia txikiagora jarrita”.

### **Berrerabiltzearen eta birziklapenaren jai**

Ekainaren 23rako, bi jai antolatu dira edukiontzia berrantolatuko dituzten auzoetan, herritarrek hondakinen kudeaketa egokian parte hartze aktiboa izan dezaten sustatzeko. Jai horietan, informaziorako gune bat ezarriko da, eta bertan azalduko dute, Amaran eta Intxaurrondon, hondakinak gaika biltzeko edukiontzia aurrerantzean non egongo diren; Joko Garbia txartela eskuratzeko aukera ere izango da, biohondakinen edo materia organikoaren edukiontzian erabili ahal izateko. Horrez gain, erabilitako botilekin loreontziak egiteko tailer bat egingo da, eta landareak ere banatuko dituzte, biohondakinetatik lortutako konpostarekin. Horrez gain, birziklatu beharreko hondakinak gaika biltzen ikasteko tailer ludiko bat egingo da.

Amarako jaietan, *Donostitruk* bigarren eskuko azokaren saio bereziaz gozatu ahal izango dute bertaratutakoek, Sahatsaren plazan, zehazki. Oraingoan, 20 salmenta postu egongo dira, bai eta gordailu salmentako zerbitzu bat ere; azken zerbitzu horren bidez, bere objektuez (gehienez ere, bost) libratu nahi duen edonork salmentan jarri ahal izango ditu, azokako begiraleen eskutik. Bestalde, Intxaurrondoko jaietan, stand berezi bat egongo da, auzo horretan bertan tamaina handiko gaiak biltzeko egindako esperientzia pilotuan jaso zituzten objektuak erakusteko eta saltzeko. Bi jai horietan izango da aukera musika zuzenean entzuteko; hain zuzen ere, Udaleko Musika eta Dantza Eskolak girotuko ditu bi jai horiek.